

XXXII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrianetara egokitua. Helburu horren alde, Andoaingo Udalak XXXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako deialdia egiten du, Eusko Jaurlearitza Kulturako Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

1.- Sariaren xedea

Euskarazko kazetaritzaren eta komunikazioaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da *Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren* helburua. Horrela, bada, 2019ko irailaren 16tik 2020ko irailaren 15era bitartean kazetaritzan eta komunikaziorik euskaraz egin diren lanen kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, aurrerago aipatzen diren ezaugarrien arabera epaimahaiak eredu garrien irizten dituen lanak sarituz.

2.- Sari-atalak

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

- **Kazetaritza saria**
- **Komunikazio saria**

Epaimahaiak bere esku izango du euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen ***Ohorezko aipamena*** egiteko aukera. Aipatutako Aipamena, beraz, bete-betean lotzen zaie euskarazko kazetaritzaren joan etorrian eragin erabakigarria izan duten gertakariei zein ibilbide pertsonalei.

3.- Sari-atalen ezaugarriak

Honakoak dira “kazetaritza saria” eta “komunikazio saria” deiturikoen ezaugarri nagusiak:

- **Kazetaritza saria**

2019ko irailaren 16tik 2020ko irailaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek daukate saria eskuratzeko aukera.

Berriemaitzarekin zuzen-zuzenean lotutako saria da “Kazetaritza saria”. Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera.

Epaimahaiak, hortaz, inolako genero-mugarik gabe erabakiko du saria. Izan ere, sari honek bultzatu nahi du informazio edo iritzi emate edo interpretazio generoetako edukien kalitatea, edozein delarik erabilitako sormen-modua, narrazio-mota, zein igorpen-eredua.

Saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako. Irizpide horiek aplikatzerakoan kontuan hartuko dira, besteak beste, kontakizun informatiboaren gaineko datu-bilketa eta lanketa, informazio iturrien maila, zehaztasuna, ikuspegi aniztasuna, hizkera, edukiaren balio periodistikoa, sakontasuna edo iritzi / balorazioaz osatutako pieza periodistikoa. Kontuan hartuko da, halaber, jorratutako kontakizunaren interes publikoa, zeinak gizarte eta herritarren interesekoa izan behar baitu.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera ezein euskarritan nabarmendutako artikulu edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat zein kazetari talde bat izan lan sarituen egileak, edo ezein euskarritako zutabeak: horietatik guztietatik edozer saritu ahal izango du epaimahaiak.

- **Komunikazio saria**

Saria eskuratzeko aukera dute, euskarazko komunikazioa molde eta formatu berritueta egokitu eta euskarazko komunikazioaren mesedetan haien aukeraz baliatzeko urrats berritzailea direnek edo izan litezkeenek. Betiere, 2019ko irailaren 16tik 2020ko irailaren 15era bitartean euskaraz sortu, ekoitzi eta, kasua bada, zabalduetako komunikazio ekintza bat, komunikazio proiektu bat edo komunikazio proposamen bat izan beharko du nahitaez. Era guztietako narratibek zein komunikazioaren esparru zabaleko egitasmo pertsonal, kolektibo eta enpresarial guztiek dute tokia sari honetan, baita unibertsitateetako komunikazio ikasketetako gradu amaierako proiektuek ere, eta saria erabakitzeko irizpideen artean, edukiaren kalitateaz gain, kontuan hartuko da, sarituko dena berritzailea, modernoa eta beren-beregi formatu berriren baterako egin izatea. Horrela, bada, saritua izateko ezinbestez ondorengo ezaugarrietakoren bat edo batzuk izan beharko d(it)u: formatu berria, digitala, ikus-entzunezkoa, sare sozialen bat oinarri duen komunikazioa, publizitatea (spot bat zein kanpaina bat), web-sail bat, komunikazio kanpaina bat, Instagram-eko story eraginkor bat, sare sozialen batean inpaktu handia izan eta parte hartze zabala eragin duen komunikazio ekintza bat, proiektu komunikatibo berritzaile bat...

4.- Lanak aurkezteaz

Parte hartze zabala sustatzeko helburuarekin, proposamenak aurkezteko aukera irekita dago. Horrela, bada, edonork aurkez ditzake kazetaritza sariaren edota komunikazio sariaren jabe izatearen aldeko proposamenak, norbere lanen

gainekoak edo besterenak, eta proposamenak aurkezteko deia egiten zaie bereziki autoreei, komunikabideei oro har eta euskarazko kazetaritza eta komunikazioarekiko interesa duten guztiei.

Hala eta guztiz ere, saria -“kazetaritza saria” zein “komunikazio saria”- eskuratzeko ez da beharrezkoa izango inork alde aurretik lanak eta/edo proposamenak aurkeztea. Izan ere, epaimahaiak egokien irizten duen moduan egingo ditu sari horiek erabakitzeko egin beharreko jarraipen eta hautaketa lanak, ahalmena baitu sariaren gaineko erabakiak hartzeko, hautagaitza aurkeztua izan edo ez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituko da 2020ko irailaren 18an, eta honako elementuok adierazi beharko dira: a). proposatutako lanaren edo/eta autorearen identifikazioa (lanaren izenburua, autorearen izen deiturak); b). argitaratutakoa den kasuan argitalpenaren erreferentzia zehatza (paperean edo ikusentzunezko euskarrian argitaratua baldin bada, kopia bat bidaliko da dagokion euskarri fisikoan); c). Interneten eskuragarri baldin badago, baita ere horren lotura; d). argitaratu gabeko proiektua baldin bada, proiektua bera bidaliko da dagozkion euskarrietan. Halaber, proposamenaren merezimenduei buruzko azalpen labur bat ere bidaliko da. Hona proposamenak bidaltzeko helbideak:

* Andoaingo Udala

Euskara Zerbitzua

XXXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria

20140 Andoain

* raks@andoain.eus

Aurkeztutako lanak, edozein euskarritan aurkeztuta ere, ezingo dira berreskuratu.

5.- Sariak

Sari atal bakoitzean lau finalista aukeratuko ditu epaimahaiak, gehienez. Finalistak zer lan edota zein kazetari edo komunikaziogile diren ezagutzera 2020ko azaroaren hasierako egunetan emango da. Bi saridunak, berriz, sari banaketa eguneko ekitaldian emango dira ezagutzera, ez lehenago. Sari banaketa ekitaldian, bertan izango dira zortzi finalistak.

Hona XXXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria osatzen duten bi sariak:

- “Kazetaritza saria”: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako berariaz egindako oroitikurra.
- “Komunikazio saria”: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako berariaz egindako oroitikurra.

Gainera, XXXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko finalistei, saridunei izan ezik, Xabier Lakak Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako egindako serigrafia bana emango zaie.

Sariak indibidualak nahiz kolektiboak edo taldean egindako lanei emandakoak izan daitezke, baina zatietzenak dira.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du epaimahaiak.

6.- Epaimahaia

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

- *Mahaiburua*: Mikel Arregi, Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizaziorako zinegotzi arduraduna, edo honek bere ordezko gisa izendatutako udalkidea.
- *Mahaikideak*: Jose Inazio Basterretxea, Itxaro Borda, Aingeru Epaltza, Maite Goñi, Elixabete Larrinaga, Ion Muñoa eta Jon Sarasua.
- *Idazkaria*: Patxi Baztarrika, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria.

Epaimahaiak aukera izango du bere erabakiak hartzeko prozesuan kanpoko kolaboratzaileen laguntza eskuratzeko, halako beharrik ikusiko balu.

7.- Sarietarako buruzko Azken Erabakia

2020ko azaroaren 26an ospatuko da, Andoainen, sari banaketako ekitaldi jaia, beste zenbaiten artean zortzi finalistak bertan direla, eta han emango da ezagutzera epaimahaiak bi sarietarako gainean hartutako azken erabakia. Epaimahaiak hartutako *Azken Erabakia* apelaezina izango da.

8.- Baldintzak onartzea

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.